

MEMORIA DUTEN PAISAIK" IX.
ARGAZKILARITZA-LEHIAKETA

NAFARROAKO PAISAIK HUTSAK

2026KO UZTAILAREN 1ETIK IRAILAREN 4RA

NAFARROAKO ARTXIBO
GARAIDEA



archivo.contemporaneo@navarra.es



848 429723



Zaragozako errepidea, 3. km
Cordovilla (Nafarroa)



Gobierno de Navarra
Nafarroako Gobernua
Departamento de Cultura, Deporte y Turismo
Kultura, Kirol eta Turismo Departamentua

Pablo Díez Lagok
utzitako argazkia

MEMORIA DUTEN PAISAIK IX. ARGAZKILARITZA-LEHIAKETA

"Nafarroako paisaia hutsak"

Gaur egun, Nafarroako paisaia hutsak ulertzen ahal dira esanahiz betetako lurralde gisa, ez isiltasun-espazio gisa. Soro zaharrek, borden hondarrek edo ia trazatu gabe dauden bidezidorrek eratzen dituzten unibertsoetan, gizakien aztarna ez da desagertu, eraldatu egin da. Paisaiaren Europako Hitzarmenaren ildotik, eremu horiek paisaiaren ikuskera zabal baten parte dira, eta ikuskera horrek barne hartzen ditu bai ezohiko espazioak eta bai egunerokoak edo are andeatuak ere, faktore naturalen eta giza faktoreen arteko elkarreraginak eta espazio horiek errekonozitzen dituen gizarte-pertzepzioak definituta, betiere. Ikuspegi horretatik, paisaia hutsak memoria kolektiboa dira, eta orobat dira aztarnak, arrastoak, oroipenak, aztarrenak, oroitzapenak: oso aspaldiko nekazaritzako eta abeltzaintzako erabilerak, arkitekturaren hondarrak, ahantzitako bideak, Nafarroa moldatu duten despulatze- eta aldaketa-prozesuen erakusgarri. Itxuraz giza jarduerarik ez duten paisaia horiek, benetan, prozesu historikoak eta eraldaketa sozioekonomikoak erakusten dizkigute. Hitzarmenak berak, hain zuzen, animatzen gaitu horiek identifikatzera, horien ezaugarriak definitzera eta horiek kudeatzera, ondare komunaren parte gisa. "Memoria duten paisaiak" lehiaketaren helburuekin bat, lurralde horiek agertoki pribilegiatuak dira paisaiaren eta memoriaren arteko erlazioari buruz hausnartzeko, eta agerian dagoenaren eta ezkutuan dagoenaren balioa nabarmentzeko. Haietan ikusi nahi da haien alderdi estetikoak, baina ez hori bakarrik, orobat zer gaitasun duten istorioak kontatzeko, tokiko nortasunak indartzeko eta paisaiaren kultura jakin bati laguntzeko, hain zuzen ere oinarri dituen babesa, parte-hartze soziala eta etorkizun jasangarrien eraikuntza.

OINARRIAK

1.-Gaia.

Aurkezten diren argazkiek lotura izan behar dute Nafarroak XX. mendetik gaur egunera bizi izan dituen despulatze- eta aldaketa-prozesuen lekuko diren arkitektura, erabilera edo espazioekin.

2.-Lehiakideak.

18 urtetik gorakoek hartzen ahalko dute parte. Antolakuntzarekin zerikusia duten pertsonak ezin izanen dute parte hartu, ezta haien ahaideek ere. Lehiakide bakoitzak gehienez ere hiru irudi aurkezten ahalko ditu: irudi original eta argitaragabeak.

3.-Aurkezpena.

Dokumentazioa gutun-azal itxian aurkeztuko da; gutun-azal bat lehiaketara aurkezten den argazki bakoitzeko. Hartan adieraziko da lehiaketara aurkezten den argazkiaren izenburua eta, gainera, bi gutun-azal izanen ditu barruan:

-1. gutun-azala:

Kanpoko aldean, argazkiaren izenburua agertuko da bakar-bakarrik.

Barruan DIN A4 neurriko orri bat sartuko da, datu pertsonalak izanen dituen (izen-deiturak, NANA, jaioteguna, helbidea, helbide elektronikoa eta telefonoa); gainera, han adieraziko da lehiaketara aurkezten den irudia zer tokitan eginga den (helbidea, herria...).

-2. gutun-azala:

Kanpoko aldean, argazkiaren izenburua agertuko da bakar-bakarrik.

Gutun-azalaren barruan, aurkezten den argazkia egonen da. Argazkiaren euskarriaren atzealdean, aukeratutako izenburua agertuko da, ez besterik.

Argazkia izengabea izanen da, eta ez da egonen gutun-azalaren barruan ez kanpoan argazkiaren egilea identifikatzen ahal duen inolako daturik, salbu eta izenburua bera.

Argazkiak honelakoak izanen dira: argazki-paperaren gainean dauden originalak; zuri-beltzekoak edo koloretakoak; 30 x 40 cm-ko neurria dutenak eta markorik gabeak.

Argazki bakoitza **kartoi mehez** egindako 30 x 40 cm-ko euskarri baten gainean muntatuta egonen da.

4.-Epea.

Lanak aurkezteko epea 2026ko uztailaren 1etik irailaren 4ko 14:30 artekoa izanen da.

5.-Non aurkeztu.

Lanak behar bezala babestuko dira, materialak kalterik izan ez dezan, eta aurrez aurre edo posta ziurtatuaren bidez aurkeztuko dira, Nafarroako Artxibo Garaikideari zuzenduta (Superser eraikina; Zaragozako errepidea, 3. km, 3. solairua; 31191 Cordovilla, Galar). Orduetgia: astelehenetik ostiralera, 08:30etik 14:30era.

Antolakuntzak emanen du hartu izanaren agiri bat.

6.-Epaimahaia.

Epaimahaia izendatuko du deialdia egin duen entitateak, eta osatuko dute argazkilaritzako bi profesionalek (argazkilari profesional batek eta teknika fotografikoan eta estetikari aditua den Nafarroako Artxibo Garaikideko teknikari batek) eta Nafarroako Gobernuko Artxiboen eta Dokumentu Ondarearen Zerbitzuko bi kidek.

Aurkezten diren argazkiak baloratzean, irizpide hauek hartuko dira kontuan:

-Lehiaketaren helburuak betetzen diren.

-Teknika fotografikoa.

-Konposizioaren originaltasuna.

-Paisaiaren ikuskera integrala (Paisaiaren Europako Hitzarmenaren ezarritakoaren arabera).

7.-Sariak.

Epaimahaia egindako balorazioaren arabera emanen dira sariak, eta haren erabakia apelaezina izanen da.

Lehenbizikoa: 700 euro.

Bigarrena: 400 euro.

Hirugarrena: 200 euro.

Paisaiaren ikuskera integrala hobekien islatzen duen argazkiarentzako accesita: 200 euro.

Informazio gehiago, hemen:

